

Hizkuntzak ikastea ez da jolasa; lana eta konpromisoa eskatzen ditu. Hizkuntza bat ez da ikasten soil-soilik diplomatxo bat lortzeko. Ez dago gaizki hala ere, diplomak lortzea, baina... hizkuntza bat ikasteko helburu nagusia ez da hori, ez du izan behar. Hizkuntza bat aukeratzen dugunean, betiko da, maskota bat etxera ekartzea bezala edo lagunei eta senideei eusteko konpromisoa hartzea bezala da. Bakoitzak egin behar du bere esku dagoena. Ez da erraza izango, baina... nork nahi du bidaia monotono horietako batean aspertu? Kitzikatzen gaituzten gaiak bilatu behar ditugu. Gure jakingura hiltzen ez dugu inoiz utzi behar. Atzerriko hizkuntzek horretan lagunduko digute. Inoiz bukatzen ez den atseginez eta atsekabez betetako bidaia bat da. Ez desanimatu, bidean topatzen duguna topatzen dugula. Mugak daude, baina muga zirriborrotsuak dira, gaur hemen eta bihar han egongo direnak. Batzuetan, itsasoko olatuekin bezala gertatzen da: badator olatua, egiten ditu aurrera hainbat metro, segituan atzera egiteko beste horrenbeste... Hizkuntzak ikasteagatik ez gara ez hobeak ez okerragoak izango, ezberdinak baizik, mutazio infinitu batean amilduko bagina bezala.



